

# Marijesiak eta Abenduak Bizkaian

GAUR ARRATSALDEAN ETA GOIZALDEAN ENTZUN AHAL IZANGO DIRA AURTENGO GABON KANTEN LEHEN DOINUAK

*Abendu Santu honetan estrofa-  
rekin hasten dira guztiak, baina  
hortik aurrerakoa desberdina da.  
Baita izena ere: Marijesiak, Gerni-  
ka, Muxika eta Arteagan; Abendu-  
ak, Iurretara, Lekeitio eta Iba-  
rrangelun, eta Abenduko Mutilak,  
Ean.*

**GAUR HASIKO DIRA** Baina, esan beza-  
la, egiaren ordua gaur bertan izan-  
go da eta Gauteziz Arteagakoak  
izango dira euren herriko kaleetan  
zehir abesten hasiko diren lehenak.  
Hauek arratsaldez arituko dira,  
gauean eatarren eta goizaldean gerni-  
karren txanda izanik. Hiru  
hauek dira bederatziko hurrenak  
egiten dituzten bakarrak –Gabon gau  
aurreko bederatziko goizaldeetan  
abesten dituzte euren doinuak– eta  
azken biekin, gainera, kalez kale ibi-  
lian doazen bitartean abestuko  
dute.

Gernikarrek ohitura zahar hau  
ardura handiz gorde dute eta en-  
tute handia lortu dute. Hauek,  
herria gero eta zabalagoa dela kon-  
tuan hartuta, erronda desberdinak  
egingo dituzte gau bakoitzean auzo  
eta kale guztietara heltzeko asmoz.  
Ohi bezala, lau bakarlarik euren  
eginbeharra txandakatu egingo  
dute goizalde hotzek euren ezta-  
rrian ahalik eta kalte gutxien egin  
diezaieten.

Horrez gain, Gernikako Marije-  
sien berri zehatzagoa jakiteko,  
herriko Kultur Etxean urtarilaren  
8ra bitartean erakusketa jarri dute  
ikusgai. Marijesien gaineko doku-  
mentazioa, prentsa bilduma, histo-  
ria atalak eta batez ere argazkiak  
daude ikusgai, besteak beste baka-  
lari moduan aritu zela ezagutzen  
den Auzotxu ezizenekoarena.

Gainontzeko herriek gau baka-  
rrean abesten dituzte Marijesiak,  
abenduaren 23tik 24ra bitarteko  
goizaldean, hain zuzen ere. Batzuk  
ibilian egingo dute, baina gehienek  
etxez etxe edo baserriz baserri  
banan banan abestuko dituzte  
euren koplak hasieratik amaiera-  
raino.

INIGO ALBERDI



Gernikarrek ibilian egiten dituzte euren goizaldeko Marijesietako errondak. ARGAZKIAK: INIGO ALBERDI



Lekeitioko ordezkariak ere hurbildu ziren joan den zapatuan Gernikara.



Muxikako Ariatza auzoan abenduaren 23an egiten da gaueko erronda.

## LABUR LABUR

● **Topaketak.** Bigarren aldiz egin  
dira aurten Bizkaiko Marijesien eta  
Abenduen topaketak, iaz ospa-  
tu ostean. Aurreko urteetan ere pare-  
bat ekitaldi egin izan dira kostako  
herrian ohitura zahar hauen inguru-  
an.

● **Aniztasuna.** Izenetik bertatik  
hasita, herri bakoitzean era desber-  
dinean betetzen da Gabonetako  
Kanta hauen ohitura. Letrak, doi-  
nuak, makila erabili ala ez, edota  
ibilian egin zein geldi...

● **Parte hartzaileak.** Bizkaian  
Gabon kantak abesten dituzten ia  
herri guztiak izan ziren Gernika-  
Lumon: Gauteziz-Arteaga, Ean,  
Lekeitio, Muxika, Ibarangelu, Iurre-  
ta zein Gernika-Lumo. Arratia  
aldean ere abesten omen dituzte  
oraindik, baina joan den larunbatean  
ez zen euren ordezkariak izan.

## ZENBAKIA

# 9

● **Bederatziko** gau tristetan ibili gara  
hotzetan, abesten dute Gernikako  
Marijesietako abeslariak. Hauek eta  
Gauteziz Arteaga eta Eako gazteak  
dira bederatziko hurrenak abesten  
dituztenak, beste guztiak gau baka-  
rrean aritzen diren bitartean.

MARHATTENSEKO GABONETAKO XXVII. TORNEA

MIGUEL ANGEL LOPEZ III. MEMORIALA

2011ko ABENDUAREN 17a.  
BARAKALDOKO NAZIOARTEKO  
ERAKUSTAZOKA (BEC)  
5. PABILOIA

Antolatzailea

MARHATTENSEKO GABONETAKO XXVII. TORNEA

JOSEBA QUINTANA III. MEMORIALA